

237. zk.

Bigarren aroa

Irailak 15
2014

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Erreportajea

Turismo sasoiarekin
pozik dago Udala



Kirolak

Uda emankorra izan
dute Santiagotarrek



Bidassoa Basque Brewery



Carlos, Goyo eta Iñigo Bidassoa Basque Brewery faktoriaren sortzaileek Estebenean irailaren 19an aurkeztuko dute garagardo berria.

Bidasoko artisau garagardoa jaio da

5 Inkesta Zein dira gehien kezkatzen zaituzten arazoak?

6 Elkarrizketa Bidassoa Basque Brewery

8 Kirolak. Aurre denboraldia gora begira abiatu du Leka Eneak.

10 Hurren Leihoa. Eguzkitza LH 2

11 Gurasoentzat. Gurasoen beldurrak

12 Gazteen Lanak. San Vicente DBH2

13 Irun Rock Jaialdia



**IKASI
EUSKARA
BESTELA EZ
GARA!**

Matrikula
zabalik
2014/15

Eskaintza bereziak

DIRUZ LAGUNDUTAKO IKASTAROAK

Maila guztiak | H.A.B.E titulu ofizialak | EGA
Azterketen prestaketa (Hizkuntz eskakizunak | IVAP | IRALE)
ON-LINE ikaskuntza | Guraso taldeak.

Ordutegiak: Goiz, eguerdi, arratsalde eta gauetz.

Matrikula zabalik: Irailaren 9tik - 26ra
11:00etatik - 13:00etara
17:00etatik - 19:00etara

Mafarena indibidea, 13 | IRUN (20302) | (Matrikula tr.) 943-635-266 | hertjakintza@gmail.com

HADE



Pintzelaren piztia



Yurre Ugarte

Gaur egungo ikasle gazte bati galdetu ezker: zenbat margolari eza gutzen dituzu? eta, zenbat emakume margolarien izen aipa ditzakezu? Ez genuke erantzun luzeegirik jasoko, ziurrenik. Galdera horiexek pertsona heldu askotxok ere ezingo lituzke erantzun komeririk gabe, egia. Pintura arte guztietarik gutxienena/minoritarioena izan ohi da; gainera, heziketa ofizialean "plastikaren" baitan baztertuta eta gutxietsia dago nolabait (gainerako Europako herrialdeetan ohi denarekin alderatuta behintzat). Emakume margolariak existitu, beti existitu diren arren, pinturaren historia ofizialak gutxietsi, baztertu edo ahaztu ditu. Hala ere, eztabaidagai interesgarria da oraindik orain ematen den emakume margolari edota artista plastikoen urritasuna, baita badirenek duten oihartzun eskasa ere; hau da, emakumeak unibertsitatara heltzeko trabarik ez daukan honetan, arte museoak denontzako doan eta no-

nahi ugaltu direnean, artearen usitezko "demokratizazioaren" garaian, edota artearen merkatuaren garaian. Irunen artista horietariko bat bage-nuen, 2008an hil zena, Menchu Gal, eta dugu, haren obraren lagin bat ikusgai baitago bere izena daraman erakusketa-gelan. Bidasoko pintura tradizioaren maisuetako batekin, Gaspar Montes Iturriozekin, eman zituen lehenengo zertzeladak Menchu Galek gaztetan, gerora ibilbide oparo eta emankorreko margolari aparta izango zenak. Aurtengo udan "Menchu Gal eta Irungo pintura ondarea" izeneko erakusketa ipini du udalak (abuztuaren 31 arte) Ficoban; gozatu ahal izan dugu Galen pintzelaren piztia ("fauve") Bidasoko ilunabarrak irudikatzen zituenean, Atharratzeko, Baztango nahiz San Martzialgo paisaiak margotzean, edota "Elizondoko etxe gorria" deiturikoa islatzerakoan, besteak beste. Ordea, ulertezina da zergatik udan bakarrik dagoen ikusgai irundarron pintura ondarea. Zergatik ez dagoen ikusgai ikasturtean zehar, inguruotako ikasleentzat (nahiz irundar guztiontzat) ikas dezaten Menchu Gal nor zen (eta, bide batez, Bidasoko eskola deiturikoaren maisu guztiak). Ikasleek erromesaldia egin beharko lukete Menchu Gal aretora (edo dena delako erakustokira, Irungo pintura ondarea aipatu erakusketa gelan ez bada sartzen). Hala, etorkizunean behintzat, izango dute zer erantzun.

Irun atzo Irun gaur

Jesus kalea atzo eta gaur



IUA: 52389



Izen honen inguruko jatorria ezezaguna da. Babiliteke Jesukristo gogoratu nahi izana, edo beste pertsonaren bati eginiko dedikatoria izatea arrazoia.

1762ko dokumentu batean jasota dago kale honetan konponketa lanak egiteko erabakia hartu zela. San Juan Harri aldetiko patarra leuntzea zen helburua. Garai hartan, ordea, kale hark ez zuen izenik.

1853an, Mariano Jose Laskurainen idatzi batean, Jesus karrika agertzen da, izen partikularra eta arrunta izango balitz bezala.

1859ko apirilaren 26an, gauez, suak Udaletxeari itsasita zeuden etxe batzuk suntsitu zituen,

areastian La Salle San Martzial eskola zegoen aldean kokaturik zeudenak. Ezbehar hura baliatuta, etxe haien jabearekin, Maria Vicenta Olazabalekin, negoziatu zen San Juan plaza zabaltzea, bai eta, bide batez, Jesus kalean harriko eskailerak jartzea ere. Urte hartan egindako Irungo kaleen zerrendan Jesusen karrika agertzen zen.

Goiko argazkian azaltzen den ezker aldeko etxea 1994an eraitsi zuten. Atzean, San Juan Harria plazako birmoldaketa lanak egin aurretik zegoen eskailera.

Iturria: Irungo kaleen izenak. José Monje

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena eta Unai Oiartzun

Euskara zuzentzailea: Xabier Kerexeta

Publizitatea:

Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
preto@telefonica.net

Ion Otxoa

ion@943sansebastian.com

Argitaratzailea:

Baseclick S.L.

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua:

SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 - 20304 IRUN

Tel: 673 39 84 57

Anaka kalea, 11
IRUN
943.61.54.57



TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943.64.54.57




BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN



Turismo sasoiaren balorazio positiboa egin du Irungo Udalak

Luis Marianoren inguruko jarduerak izan dira protagonista



2014ko udaren protagonista Luis Mariano izan da.



Uztaila eta abuztua pasata, hiriak jaso duen turismoaren inguruko balorazioa eskaini du Irungo Udalak. Turismo datuen irakurketa baikorra egin du Miguel Ángel Páez Sustapen Ekonomikoko ordezkariak. Eguraldia aproposa izan ez den arren, gora egin du turismo bulegora hurbildu den bisitarien kopuruak. 4.500 izan dira aurten, Espainiako eta Frantziako Estatuetakoak gehienak.

Hotelen okupazioari dagokionez, %90a gaintu da abuztuan. Uztailean, berriz, %80ra ere ez da iritsi. Uztaileko eguraldia izan da diferentzia horren arrazoietakoa bat. Eguraldia dela eta, gainera, merkataritza-turismoa izan da nagusi Irunen. "Turismo bulegotik pasa diren bisitari gehienek gune komertzialei eta gastronomikoei buruzko informazioa eskatu dute", azaldu du Páezek.

Luis Mariano, udako izarra
Bisitari gehien erakarri dituzten jardueren artean, Luis Marianoren ingurukoak azpimarratu ditu. Kantariaren jaiotzaren mendeurrena ospatu du Udalak, hainbat ekintza antolatuta, ospatu ere. Horien arrakasta "begien bistakoa" dela baietsi du zinegotziak: "Bisitari askok, fran-

tziarrak gehienak, Luis Marianoren inguruko programazioaz galdetu dute. Gainera, Irungo Udalak argitaratutako Pedro Usabiagaren liburuak arrakasta handia lortu du, salmentei dagokienez". Aurtengo jardueren ondoren, aurrerantzean ere Luis Marianoren irudiak erakargarritasun turistikoa sortuko duela uste du Irungo Udalak.

Artista irundarraren inguruko jarduerak alde batera utzita, beste hainbat hitzordu ere izan dira Irunen udan zehar. Uztailean antolatutako Dies Oïassonis jaialdi erromatarra da horietako bat. Irunen antzinako iraganak ere bisitariak erakartzen dituela nabarmendu du Miguel Ángel Páezek: "Ehunka bisitari pasa dira Oïasso museotik, eta beste hainbeste izan dira tren erromatarren ibilbidean parte hartu dutenak".

Eta Santiago bideak ere bisitariak erakarri ditu Irunera. Erromesen aterpetxean 4.500 lagunek hartu dute ostatu udan; hau da, iaz baino %12 gehiago dira.

Uztail-abuztuetan gora egiten du beti Irunek jasotzen duen bisiten kopuruak. Baina Udalak urte osorako emendatu nahi du turismo eskaintza.



Olaizola

Immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

INKESTA

Zein dira gehien kezkatzen zaituzten arazoak?



Ines Zubillaga - 42 urte

Langabezia eta ustelkeria-kasuak dira batez ere kezkatzen nauten arazoak. Orain dela urte batzuk, heldugabea nintzenean, ez nintzen konturatzeko arazo hauetaz, ez nuen lanean pentsatzen eta ez ziren argitaratzen hainbeste ustelkeria kasu.

Honorina Redondo - 82 urte

Langabezia da nire kezkarik handiena. Nire seme-alabek orain lana badute, baina bata bi urtez lanik gabe egon da. Ez dute diru askorik irabazten; baina, gutxienez, ez diet lagundu behar. Jende gehiagori gara eta enpresa asko itxi dira, jendeak non egingo du lan?



Luis Irisarri - 74 urte

Gazteriak kezkatzen nau, langabezia oso handia delako. Nire alaba lanik gabe ibili da, eta topatzen dituen lanak oso ezegonkorak dira; gainera, arrunt gaizki ordaindutakoak izaten dira. Kontratzen dutenek krisi egoeraz baliatzen dira baldintza desagokiak eskaintzeko: hau ala ezer ez.



Ascensión Vergara - 44 urte

Umeei ematen zaien heziketak kezkatzen nau. Adibidez, nire seme-alabei heziketa bat ematen diet; banandua nagoenez, aitarekin beste gauza ezberdin batzuk ikasten dituzte, ordea. Batez ere, teknologia berrien erabilera gehiago kontrolatu beharko litzateke.



Amparo Gamero - 57 urte

Batez ere langabeziak kezkatzen nau. Nire ingurunean gero eta jende gehiago lanik gabe dago. Nire semeak ez du lanik aurkitzen eta uste dut arazo handia dela gure gizartean. Bestalde, osasun sistema txarrera doala uste dut; gero eta denbora gehiago itxaron behar da hiztordua bat lortzeko.





BALIA EZAZU 700 € ARTEKO LAGUNTZA OFIZIALA

Aldatu zure bainera dutxa batengatik

Berrikuntza txiki bat, egundoko aldaketa

Zure bainera egungo dutxa talde batengatik aldatzen dugu.

¡Guztia 2 egunetan!

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Pedregin de Urantz, 9 (Urdanibia plazaren ondoan) - 20304 Irun
 943 615 184 - 687 572 920
 bainu.irun@gmail.com - www.bainu.eu
 Zarautz hiribidea, 86 - 20018 Donostia
 943 561 652



Alemaniar hizkuntza eta kultura Irunen eta Bidasoaldean: arraskasta handiko esperientzia

Irundar gazte zenbait dagoeneko alemanez mintzo dira!

Bi urte dira Lernraum aleman akademia abian dela, eskarmentu handiko irakasleekin. Irungo erdialdean kokaturik, Lehen Hezkuntzako, DBHko eta unibertsitateko ikasleak ez ezik, enpresaren, turismoaren, nazioarteko marketinaren eta garrarioaren langileekin ere dihardu. Aleman hizkuntzaz gain, bertako kultura irakastea du helburu.



Angela Billson Lernraumeko zuzendaria, akademiako sarreran, Urantzua kalean.

Lernraumek Europa osoan homologatutako metodoa darabil. Hortaz, ikasle batek ikasketak Europako beste bazter batean jarraitzea erabakitzen badu, metodologia berbera aurkitu eta beraz edozein institutu ofizialetan egin dezake azterketa, Goethe Institutua izan, Hizkuntza Eskola Ofiziala izan. Hain zuzen, aurten bertan ikasle batzuk aurkeztu dira Goethekoaren azterketetara, bai eta tituluak arrakastaz eskuratu ere.

Banaka edo talde txikitan

Eskolak banaka eman daitezke, ikasleari arreta albait handiena eskaintzearen. Baina gehienez zazpina laguneko taldean aritzeko aukera ere badago, betiere matriculatu direnen beharren arabera antolatuta.

Eskola guztiak bertakoek ematen dituztenez gero, nabarmendu beharra dago ikasleek lehen egunetik entzuten dutela aleman ezin

hobea, ikus-entzunezkoen laguntzaz. Gainera, talde murriztezi esker, ikasle guztiak praktika dezakete alemana ikasgelan. Ikasleek etengabe sustatzen dute gramatikaren eta ahoskeraren hobekuntza. Angela Billson zentroko zuzendariak dioenez, "jarraitzen dugun metodologia "oso emaitza onak lortzen ari da, oso denbora gutxian ezagutza-maila handia erdiesten da eta".

Lernraum akademian "aleman hizkuntzaz gain, bertako kultura irakastea ere dugu helburu", nabarmendu du zuzendariak.

Bereziki aipagarria da 11 eta 15 urte bitarteko gaztetxoek esperientzia, iaz alemanez ikasten hasi eta urtebetean aurrerapen bikainak egin baitituzte metodologia honen bitartez.

Argibide gehiago:
www.lernraum.es



LERNRAUM
ACADEMIA DE ALEMÁN

BANAKA EDO TALDE TXIKITAN
IRAKASLE ALEMANIARRAK
HOMOLOGATUTAKO METODOA
OSO EMAITZA ONAK
GAZTETXOENTZAT ZEIN HELDUENTZAT

Pelegrin de Urantzua Kalea, 21
T. 943 632 945 - M. 656 770 752
www.lernraum.es - info@lernraum.es

Carlos Arrecubienta, Bidassoa Basque Brewery

“Gargardoaren kultura sortzeko, lan handia dago aurretik”

Irunen egindako artisau garagardoa dasta daiteke dagoeneko eskualdeko taberna zenbaitetan. Carlos Arrecubientak, Goyo Villalabeitiak eta Iñigo Pérezek sortu dute Bidassoa Basque Brewery faktoria. Jatorria ahaztu gabe, Alemaniako edo Ipar Amerikako garagardoaren tradizioa barneratu dute. New Yorken lan egin du Carlos Arrecubieta hondarribiarrak, eta bertan ezagutu du garagardoaren kultura.



- Nola eta zergatik erabaki duzue Irunen artisau garagardoa egitea?

Mikrobiologia-ikerkuntza lanean pasa ditut azken hamabost urteak AEBn. Han garagardoaren mundua deskubritu nuen, eta lantegi batean kolaboratzen aritu nintzen, industria barrutik ezagutzeko. Duela urte eta erdi bizimodua aldatzea erabaki nuen. Behe Bidasoara bueltatu nintzen, negozio honetan abiatzeko asmoz. Goyo Villalabeitia bankaria eta Iñigo Pérez ingeniaria aspaldiko lagunak nituen, eta haiekin jarri nintzen harremanetan. Inbertsio handia egin dugu, baina ondo planifikatutako ideia izan da.

- Nolako garagardoa da Bidassoa?

Hiru modalitate ditugu oraingoz. “Kasper” garagardoa alemaniar estilokoa da, suabea, arina eta edaten erraza. “Mugalar” amerikar estiloko Pale Ale garagardoa da. Zapore eta aroma gehiago dauka. Garagardoaren munduan murgiltzeko estilo aproposa dela uste dut. “Boise” India Pale Ale garagardoa da. Zapore mingotsagoa eta alkohol kantitate handiagoa du. Ez dira oso garagardo bereziak, baina hasieran ezin dugu gehiegi arriskatu.

- Non aurki eta dasta daiteke?

Artisau garagardoaren ezaugarriek berez banaketa eremua zehazten dute. Produktu kontserbagarriak edo egonkortzailerik ez daramanez, denboraren poderioz eboluzio bat dauka eta asko alda daiteke. Hori dela eta, ezin dugu Penintsularen hegoaldera bidali, adibidez. Momentuz Euskal Herrian zehar eskainiko dugu batez ere. Tokiko izaera eta nortasuna eman diogu, gainera. “Bidassoa” eta “Basque” izenez gain, garagardo bakoitzak istorio bat dauka atzean. Kasper euskaltzale alemaniar bat izan zen. Kontrabandoa Bidasoaldeko historiaren parte da. Eta Boise, Idahoko hiriburua, AEBn komunitate euskaldun handiena biltzen duen hiria da.



Carlos, Goyo eta Iñigo, Bidassoa Basque Brewery faktoriaren sortzaileak.

- Ba al dago inguru honetan artisau garagardoarenganako interesik?

Hazten ari den merkatua da, gero eta jarraitzaile gehiago ditu. Marka ezberdinak sortzen ari dira Euskal Herrian. Hala ere, garagardoaren inguruan dagoen kultura ezin da ardoarenarekin konparatu, adibidez. Kultura hori sortzeko lan handia dago aurretik. Esate baterako, jendeak pentsa dezake artisau garagardo bat garestia dela. Baina kontuan hartu behar da guk malta Europako toki ezberdinetatik ekartzen dugula, eta lupuluak AEBtik edo Zelanda Berritik inportatzen ditugula. Kalitatean dago garagardo industrialarekiko aldea.

Irungo Udalak langabetuei euskara musutruk ikasteko aukera eskaintzen die

Matrikula arruntean prezio sistema berria eraiki du

LANNAHI

Fernando San Martin Euskara ordezkariak eta Jaione Campo Udal Euskaltegiko zuzendariak *Euskaraz Blai* goiburuko matrikulazio kanpaina aurkeztu dute. Aurtengo eskaintzen artean, aparteko arreta merezi duen bat nabarmendu dute: LANNAHI programa, langabezia egoeran dauden pertsonen begira, euskara debalde ikasteko aukera ematen duena. Zinegotziaren esanetan, “Programa honen bitartez Euskara Arloak bat egin nahi du erakundeek lana bilatzeko formazioaren inguruan egiten ari diren ahaleginarekin”. Zinegotziak gaineratu zuen aurre-izenematea egin zuten pertsonen behin betiko izenematea egin behar zutela SAC/HAZEN, bulego ordutegian, irailaren 9tik 19ra, DARDE delakoa eta etxera igorritako gutuna auzetuz. Campok, bide batez, dena delakoagatik aurre-izenematea egin ez zuten langabeak animatu zituen aurre-izenematea egitera, egutegi berdinean, irailaren 9tik 19ra, HAZEN, eta gogorazi zuen ezinbestekoa dela mailaketa froga udal euskaltegian egitea, behin betiko izenematea egin ahal izateko. Informazio gehiago nahi dutenek 943 505 273 telefonora deitu dezakete, edo euskaltegi@irun.org postara idatzi.

PREZIO SISTEMA BERRIA UDAL EUSKALTEGIAN

Ikasturte honetarako, eskola orduen araberako prezio sistema berritzaile bat eraiki du Euskaltegiak

“MUGI edo LURRALDEBUS txartelaren antzekoa da: zenbat eta bidaia gehiago egin, orduan eta merkeagoa; bada, gure kasuan zenbat eta euskara eskola ordu gehiago hartu, orduan eta merkeagoa euskaltegiaren matrikularen prezioa”. Konparazio hau erabiliz azaldu zuten Fernando San Martinek eta Jaione Campok prezio politika berria.

Udal arduradunen esanetan sistema honen bitartez eskola ordu karga gehiago hartzen duen euskara ikasleari matrikula %35erainoko merkataria ekarri diezaioke, eta, gainera, ikasketa prozesuari bultzada handia emango zaio; izan ere, “hizkuntza bat ahalik eta azkarren ikasteko, ahalik eta ordu gehien eskaini behar zaizkio ikasketari”. Prezio politika berriak, gainera, hilerio pagatzea ahalbideratzen du, betiere idatziz eskatu eta ordainketa helbideratzen bada.

Matrikulatzeko epea: irailaren 19ra arte.



Caser Betharramen

HONDARRIBIKO JAIAK



Caser Betharram ez da funtzionamendu isolatuko zentro bat, baizik eta herriko eta auzoko bizitzan txertaturik dagoen egoitza. Helburu hori lortzeko, Amaia Zubialde bertako gizarte-langilearen hitzetan, "harreman handia dugu elkarte zein enpresekin. Urtean zehar, elkarlanean hainbat jarduera antolatzen dira eta jaietan egitarau zabala prestatzen dugu. Hau guztia antolatzeko, egoiliarren eta langileen inplikazioa erabatekoa da".

Hala, Alardeari buruzko Jose Maria Ballestaren argazki erakusketa apailatu dute egoitzan, eta tailerrak, musika zein dantza emanaldiak, lehiaketak, buruhandiak, txango bat eta bazkari berezia, eta, nola ez, Alarde bat ere egin dute. Jardueretan primerako giroaz gozatu dute, bai egoiliarrek eta euren senidekoek, bai bertaratu diren guztiek ere.

Caserrek eskerrak eman nahi dizkie honako hauei: Nagusilan, Izugarriya Erraldoiak, Meaka Dantza Taldea, Auntxa Trikitixa Taldea eta Mendelu konpainia.



GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

CASER BETHARRAM



Goian, Trini Echeverria Caserren kantineko kantineira, bere biloba Anderrekin, Miriam Comerón Mendeluko kantinearekin eta zenbait soldadurekin desfilatzen. Behean, hiruak, elkarri opari ematen.



Izugarriya erraldoi eta buruhandien konpartsa Caserren, eta haurren pintura lehiaketaren irabazleak.



Gora begira abiatu du denboraldia **Leka Eneak**

Azken urteotako bilakabideari eutsi dio Irungo mahai tenis elkarteak



Lehenengo Argazkian Gorka Fernandez ikusi dezakegu eta bigarrean Leka Eneako emakumeen taldea.

Eskolako taldea izan zen Irungo Leka Enea bere sorreran, 1970eko hamarkadaren amaieran. Gaur egun, mahai teniseko Superdibisioan parte hartzen duen euskal elkarte bakarra da. Bat, ez, bi talde ditu, gainera Leka Eneak goi mailan: emakumeena eta gizonena. Ez hori bakarrik, Europako lehiaketetan ere lehiatu da azken urteotan. Komunikabideetan ez du bere lorpenen neurriko oihartzunik lortu. Hala ere, mahai tenisa ezagutzera emateko lanean jarraitzen du Leka Eneak. Euskal Herrian. Erreferentea da Irungo taldea.

Sonia Etxezarreta Teknikazio Zentroa da Leka Enea-Irunen egoitza. Urtea ere ez du bete oraindik, baina goitik behera aldatu du elkarteak. Jesús Gómez gerenteak azaldu du arrazoia: "Toki txikietan egon izan gara orain arte, eskolako gimnasioetan edo Artaleku Kiroldegian. Hortaz, tamaina honetako azpiegitura batek haur eta gazte gehiago erakartzeko eta formatzeko aukera eman digu". Olaketa kalean dago Sonia Etxezarreta.

Bi solairuko pabilioi handia da, eta hamarnaka mahai kartzeko tokia eskaintzen du. Aldagelak, bulegoak eta kafetegia ere baditu. "Askatasuna lortu dugu, espazioaren eta ordutegiaren aldetik", nabarmendu du Gorka Fernandez harrobiaren arduradunak. Azpiegitura berriari esker, berrehun pertsona mugitzen ditu gaur egun Leka Eneak mahai tenisaren inguruan.

Oraindik ere, jolas hutsaren moduan ikusten du jende askok mahai tenisa. Baina Jesús Gómezek ez du uste hain zabaldua dagoen iritzi hori arazo larria denik: "Argi dago ezin dugula denok Europa mailan jokatu. Mahai tenisa osasunagatik edo dibertsioagatik praktikatzeko ere interesgarria da".

Hori dela eta, hobby moduan hartu nahi duen edonork mahaiak alokatzeko aukera dauka Sonia Etxezarreta Teknikazio Zentroan. Mahai tenisa jokalaria lehen kolpean harrapatzea ohikoa dela uste du Gorka Fernandezek: "Kirol dibertigarria da, eta ez du maila fisiko handia eskatzen. Gainera, lehiatzen hasita, asko bidaiatzeko aukera ematen du". Horrela hasi zen Fernandez, beste hainbat neska-mutil irundarren moduan. Denboraren poderioz, estatuko mailarik gorenera eraman dute Leka Enea.

Estatuan eta Europan, onenen artean

2003/2004 denboraldian igo zen gizonen taldea Superdibisioa. 2009/2010ean emakumeek ere lortu zuten urratsa ematea. Urriaren lehen asteburuan abiatuko da aurtengo Superdibisioa.

Bi taldeak sei onenen artean ariko direla uste du Jesús Gómezek: "Taldeak indartu ditugu, eta joan den urteko emaitzak hobetuko dituztela espero dugu". Gainera, Europa mailan ere lehiatzen ari da Leka Enea. Emakumeen ETTU Cup lehiaketako lehen fasea antolatzen duen Leka Eneak Irunen, irailaren hasieran. Etxean jokatu arren, kanpoan gelditu ziren neska irundarrak.

Mutilek aldiz, Luxenburgon jokatu zuten lehiaketaren lehen fasea. Endika Díezek, jokalaria onenak, ez zuen parte hartu, Mediterraneoko Jokoetan zegoela eta. Hala ere, partidu guztiak irabazita, hurrengo faserako txartela eskuratu zuen Leka Eneak. Emaitzak lagun, gorako joera mantenduko du Leka Enea-Irunek aurtengo denboraldian.



Emakumeen ETTU Cup lehiaketa

sartu www.txingudionline.com-en eta ezagutu hobeto zure hiria

Eneala munduan, Kizilua, Desde nueve metros, testapasaondo, La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias de Bizcaya, Zuloaga, Kizilua, Bidiboa, Real Unión, Txingudi al Nalá, Poste en forma, Eneala munduan, Kizilua, Desde nueve metros



IRENDAIA IRUN HONDARRIBIA

 txingudionline.com

testapasaondo, La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias de Bizcaya, Zuloaga, Kizilua, Bidiboa, Real Unión, Txingudi al Nalá, Poste en forma, Eneala munduan, Kizilua, Desde nueve metros

berriak, erreportajeak, historia, kirolak, hurbiltasuna, eztabaidak

Zuloaga, Kizilua, Bidiboa, Real Unión, Txingudi al Nalá, Poste en forma, Eneala munduan, Kizilua, Desde nueve metros, testapasaondo, La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias de Bizcaya

Uda emankorra izan du Santiagotarrak Kirol Elkarteak

Nazioarteko hainbat lehiaketatan parte hartu dute irundarrek

Atsedenerako garaia da iraila Bidasoa ibaiaren er-tzean. Santiagotarrak Kirol Elkarteako palista eta arraunlari gehienek bukatu dute 2013/2014 denboraldia. Hurrengo sasoa prestatzen hasi aurretik, udarak eman duena baloratzeko unea iritsi da. Uzta oparoa jaso dute beste behin ere Santiagotarrak. Dominak jantzita itzuli dira kirolari irundarrek lehiaketa gehienetatik. “Gaur egun, estatuko klub onenetariko da. Aurten ere Europako eta Munduko Txapelketetan parte hartu dute gure kirolariek”, azaldu du Olatz Zabala elkarteako presidenteak. Udako emaitza nagusiak gogoratu ditugu irundarraren eskutik.

Ander Legazkue eta Beñat Rekarte.



**Ezkerrean: Telmo eta Klara Olazabal
Eskuinean: Olatz Zabala**



Zuzendaritza lanean aritzeaz gain, ur barreen ataleko entrenatzailea eta kirolaria ere bada Olatz Zabala. Maratoia da bere espezialitatea, eta aurten Espainiako Txapelkun izan da 23 urtez azpiko K2 proban, Amaia Benavente taldekidearekin batera. Bakarka, zazpigarren izan da Eslovakian jokatutako Europako Txapelketan. Zabalarekin entrenatzen duen Jon Moreno gazteak bosgarren izatea lortu du, junior mailan. Mundialean parte hartzeko txartela eskuratu du, gainera, Morenok. Irailaren 26tik 28ra izango da, Oklahoman, AEBn. Pozik dago aurtengo denboraldiarekin: “Nire helburua nazioarteko txapelketa batean parte hartzea zen, eta Europan eta mundu mailan lehiatzea lortu dut”. Hamasei urte besterik ez du Jon Moreno palista irundarrak.

Ur bizien atalak oihartzun handiko kirolariak eman izan ditu urterik urte. Ander Elosegik eta Joan Crespok, besteak beste, goi mailan lehiatzen jarraitzen dute. Baina aurten emakumezko izen batek indar handia hartu du. Klara Olazabal da sekzioko harribitxia. Hamasei urte baino ez du, eta nazioarteko txapelketetan aritu da junior eta senior mailatan, bera baino kirolari helduagoekin. Espainiako selekzioa osatzeko probetan sailkatzea lortu du, eta Munduko



Klara Olazabal

Kopetan, eto Europako eta Munduko Txapelketetan parte hartu du. Maila horretan aritzeko, Irundik urrun joan behar izaten du Olazabalek entrenatzera: “Bidasoa ibaian San Migeleko eremua dugu, baina ez da ondo prestatutako instalazioa. Astean bi edo hiru aldiz Orthez edo Pau aldera joan behar izaten dugu”. Espainiako estatuan ur bizietako kanal bakarra dago, La Seu d’Urgellen, Lleidako probintzian.

Arraunean ere badakite Irunen

Arraunketari dagokionez, euskal kostaldean traineruen estropadak nagusi diren arren, aulki mugikorrean ere maila jasoa dago. Santiagotarrak da horren erakusle. Aurten, azken urteotako emaitzarik onenak lortu ditu arraunketa atalak Espainiako Txapelketan. Garazi Lasartek eta Nerea Seijok zilarrezko domina lortu dute biko scull seniorrean. Seijo eta Lasarte, Elene Lopetegi-

rekin eta Alex Arellanorekin batera, hirugarren izan dira lauko scull-ean. Proba berean, baina gizonezko jubeniletan, brontzea eskuratu dute Ander Arellanok, Martxel Tejedorrek, Beñat Rekartek eta Ander Legazkuek. Lemazainik gabeko biko proban ere, podiumeko hirugarren tokira igo dira Rekarte eta Legazkue. Hondarribiarrak da Ander Legazkue, baina Irunen egiten du arraun: “Bizilagun guztiek esaten didate Hondarribira joateko. Baina ni gustura nago Santiagotarretan. Familia handi bat gara, eta oso giro ona daukagu”.

Giroa eta taldekideen arteko harreman ona azpimarratu dute Elkarteako kirolariek. Ezinbestekoa dute, entrenamendu gogorrei aurre egingo badiete. “Lana eskatzen du, baina gustura aritzen gara”, baieztatu du Klara Olazabalek. Giroak ez ezik, maila handiko instalazioak edukitzeak ere lagundu du Elkartearen bilakaera eta egonkortzea. “2007an berritu zituzten, eta primerakoak dira. Bidasoa ibaiaren ertzean gaude, gainera; leku paregabea da”, aipatu du presidentek.

Berrogeita zortzi urte ditu Kirol Elkarteak, eta sasoi betean dago. Harrobia lantzeaz eta zaintzeaz gain, kirol emaitza esanguratsuak lortzen ditu urtero.



Menchu Gal muscoa Vega de Eguzkitza kalean dago

EGUZKITZA ikastetxea LHko 2. maila



Luis Mariano kalean parke ederra dago

IRUN EZAGUTUZ



Gure ikastetxea EGUZKITZA da.
Victoriano Juaristi kalean dago



Irungo udaletxea San Juan enparantzan dago



Amaia Kultur Zentroa Pio XII enparantzan dago

BAKAILAOA DASTA EZAZU



Beldur emozioa. Bigarren atala

Umearen lehenengo hilabeteetako garapen afektiboan laguntzeko erreferentziak

Azter dezagun jaio eta gutxi gorabehera 8 hilabete bitarte haurraren garapen afektibo emozionalean lagungarri izan daitekeen zenbait erreferentzia labur.

Umea amaren sabelean goxo egon da, eta jaiotzarekin aldaketa anitz bizitzen ditu: tenperatura, gosea, arnasketa, digestioa, beldurra, zentzumenak martxan jartzen dira...

Aldaketa hauei guztiei erantzuteko eta segurtasuna sentitzeko, bere beharrei azkar eta sentikorki erantzuten duen pertsona behar du. Nor da pertsona hori? Ama, bere sabelean eduki duena, bera izan delako aurretik jada konexioan egon den pertsona hurbilena, sentikortasuna eraikitzen hasi dena.

Honekin esan nahi al dut aitak edo bestelako bikotekideak ezin duela pribilegiozko harreman hori eraiki? Ezta adopzioan edo harreran dutenek ere? Ez!! Guraso eta haur bakoitza mundu bat da eta modu anitzak badaude, baina naturak ematen dizkigun bideak baliatzei garrantzitsu deritzot. Honekin argi utzi nahi nuke haur bakoitzak bere ama duela hoberena, elkarrekin egiten baitute egunero hamaika elkarrekintzetan harreman eder, bakar eta errepika ezina. Beste pertsonak paraleloki harreman berdinak egingo dituzte, beste harreman eder bereziak osatuz. Baina gurasook gudan sinetsi eta geure buruarekin konfiantza badugu, gai gara gure

haur jaioberriaren beharrak sentitzeko eta emateko. Haurrak baditu gose-, egarri-, beldur-, logura-eskakizunak, eta ama (eta atxikimendu hurbilak) gai da hori ulertzeko. Gure senarekin bat egin, betebeharrak edo ingurukoak ematen dituen mezu kontrajarrak baztertuz.

- Amaren (edo beste atxikimendu-pertsonaren) sentikortasunak eta erantzun azkarrek segurtasuna emango diote, konfiantzazko erlazioa sortuz. Haurra konfiantzaz hezten bada, inguruan eta munduan konfiantza izango du, eta seguru ekingo dio esploratzeari etapa honen amaieran.

- **Haurrak ezinegona** azaltzeko negar egiten du, eta hortik amak (edo beste atxikimendu-pertsonak) beharrak aseko dizkio. Amaren gorputz komunikazioaren eta doinu lasaien bidez, haurra lasai daiteke; beraz, haurraren negarra lasaitzeko gure lasaitasun korporala transmitzea inportantea da. Gure gorputzak ematen dio haurrari tenperatura goxoa, lasaitasuna, energia... Gure konexioa edo sentsibilitatea jakintsua delako, eta ama bakoitzak (edo beste atxikimendu-pertsonak) eraikitzen baitu bere modua.

- **Gure KONTAKTU KORPORALAK** haurraren erregulazio emozionala bideratzen du. Haurra ez da sentitzen duenaz jabetzen; hitza erabili arte ezin du bere erregulazio emozional kontzientea sortu. Bitartean gure gorputza eta hitz



goxoak dira haurraren aurre emozioak edo gaizki sentitzea erregulatuko dituztenak. Gure gorputzarekiko loturak segurtasuna ematen dio.

- **Haur jaio berriek ez dute** oso urrun ikusten, gutxi gorabehera hobekin ikusten duten enfokea bularra ematen diogun distantzia da. **BEGIRADA** oso inportantea da, bada, beste entiten baitugu, lagunduak sentitzen gara;

Begirada galdu gabe eta haurraren neurrian ipinita, lurra bizitzeko aukera ematea garrantzitsua dugu.

begiratzeko, geure burua begiratuta sentitu behar dugu. Arreta garatzeko oso garrantzizkoa da, interesa sustatzeko eta haurraren NIa

garatzeko. Maitasunez, goxotasunez begiratu, den bezala onartuz.

- **Begirada galdu gabe** eta haurraren neurrian ipinita, lurra bizitzeko aukera ematea ere garrantzitsua dugu. Emozionalki edo gustura dagoenean lurrean ipini haurra, askatasunez mugi dadin. Lehen hilabeteetan gorputz guztia mugitzen du, pozik sentitzean eskuak eta zangoak gelditu gabe mugituz, eta poliki atal bakoitzaren kontzientzia hartzen joango da. Libreki gauzak hartzen (edo helduak ematean heltzen) hasiko da, baita buruz behera ipintzen ere. Ondoren, katuka ibiltzera pasako da, eta gero, zutitzera. Helduok lurrean egon behar dugu, gartzen laguntzeko eta behar duenean besotan hartzeko.

- **Hau dena bideratuz**, 8 hilabete inguruan haurrak atxikimendu-irudi bat sortzen du; alegia, bere beharrak asetzen dituen pertsona bat dagoelako kontzientzia hartzen du, eta hari lotuko zaio indarrez. Erreferentzia horrekin lasaitasunez esploratuko du mundua.

Gudan sinetsi eta geure beldurrekin, aurrera, adi egoten laguntzen baikaituzte. Zalantzak ditugunean ingurukoie galdetu, beti bada norbait erreferentzia ederrak eman diezazkigukena epaitu gabe.

GOZATU haurraz, eta ahal denean deskantsatu!!

Mapi Urresti Ortiz
KUTTUN aholkularitza
psikopedagogikoa



- Indoor zikloa
- Tonifikazioa
- Pilates
- Step
- Zumba
- Muskulazioa
- Karatea: haurrak/helduak
- Tai chi
- Defentsa pertsonala
- Kick boxing
- Brasiljar Jiu Jitsu

Bazkide
nahiz bazkide
ez direnentzat
MASAJEA

Komikia



San Vicente Ikastetxea DBH2 - 2

HAURREN ARGAZKIAK
INTERNETERA IGOTZEKO 5 ARAU

Gurasook, osaba-izebok eta enparauok harro-harro elkarbanatzen ditugu Interneten gure neska-mutikoen argazkiak, sekulako egitandiak egiten dituztelako edo besterik gabe munduan moñoñoagorik ez da goelako.

Oso ondo dago, eta hala behar du: lehenago sakelako diruzorroan eramaten genituen, eta orain, berriz, sakelako telefonoan. Horrez gain sare sozialen erabiltzailea izanez gero, Smartphone-tik Facebookerako jauzia tentazio handia da, hain da erraza.

Alabaina, halakoek gure pribazitatean eta gure segurtasunean, umeenean bereziki, izan dezaketen eragina ez dugu kontuan hartzen, gehien-gehienek gure bizimodu pertsonalean inolako interesik ez dutela pentsatu ohi dugu eta.

Eta oro har hala izaten da; baina gero eta maizago topatzen ditugu arazo latzak edo behintzat ez batere gogokoak, jatorria Interneteko axolagabekieretan dutenak.

Hona hemen aholku batzuk, atsekabeak saiheste aldera aintzat hartu beharko liratekeenak:

1. Ez adierazi argazkian non ibili ohi den umea
 2. Ez aipatu helbiderik, ez erakutsi autoaren matrikularik edo bestelako argibiderik
 3. Ez hitz egin ordutegiez edo erregulartasunez egiten dituen aktibitateez
 4. Saiatu beste senide edo lagunek ez dezaten igo umearen argazkirik aldeztetik aurretiko baimenik gabe
 5. Jakitun izan behar da argazki bat Internetera igo orduko haren kontrola galdua dela, eta oso erraz irits daitekeela norma-hirengana, baita elkarbanatzea lagunartera mugatu bada ere.
- Hauen guzti hauen helburua da asmo zitaleko norbaitek, sarean lortutako informazioari esker, umearen konfiantza ez bereganatzea.
- Bestetik, kontuan hartu umearen nortasun digitala eratzen ari dela, eta ez da argitaratu behar gerora lotsagarri gerta litekeen deus, pertsona heldua denean milioika lagunak izango baitute eskuragarri haren sare bidezko bizitza.

Pablo Moratinos

Marketing Online-ko aholkularia
3yMedia Comunicación Digital



- METODOA: K-STRETCH®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA
- POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT

www.kineesis.net www.k-stretch.com

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640



Irun Rock Jaialdia

Jaialdiaren seigarren edizioa heldu da

Jaialdiak gero eta arrakastatsuagoak izaten ari dira. “BBK live”, “Benicassim”, “Monegros” eta “Arenal Sound” dira, besteak beste, adibide aipagarrienak. Irunen Irun Rock Jaialdiak azkeneko sei urteotan goruntz egin du eta aurtengo edizioa rock independente eta alternatiboaren asmo handiko proiektua da.

Kontzertu nagusiak irailaren 27an Ficoban egingo dira; baina hori ez da guztia: 25etik 28ra San Juan eta Zabaltza plazetan, baita Santiago kalean ere, rocka kalera irtengo da, eta dohainik.

Kontzertu nagusienak *We are Standard*, *Plays the clash*, *Bigott*, *Zea Mays*, *Capsula*, *Belako* eta *Tania da Sousa* izango dira. Emanaldiok irailaren 27an Ficoban izango dira, arratsko 20:00etan hasita. Zortzi orduz musika etengabe entzuteko parada izango dute bertarutzen direnek, saioen artean 3 DJ-k euren trebetasuna erakutsiko dute eta.

Sarrera goiztiarrak 17 euro balio du, eta Interneten bidez (servikutxa, ticketea eta diariovasco.com) eta taberna batzuetan (Sargia, Uxo, Bukowski eta Dabadaban, hain zuzen) erosteko aukera dago. Kontzertuaren egunean bertan sarrera

erosi nahi izatera, leihatlean 20 euro ordaindu beharko dira. Dagoeneko sarrera asko salduta daude; hala ere, oraindik eskuratzeko aukera dago.

Berrikuntzak

Aurten jaialdian bada berrikuntza garrantzitsurik: hirian emango diren doako kontzertuak. Hilaren 25ean, Zabaltza plazan, **Lee juniorek** joko du. 26an, **La bona**, **Frank** eta **Pantones** San Juan Harria plazan izango dira. Larunbatean, hilak 27, **Oskar Benas** irundarrak Santiago kaleko **Hiruki** krepedendako terrazan joko du. Bukatzeko, igande eguerdian **Howdy** San Juanen arituko da.

17€ / 20€ -FICOBAN- IRAILAK 27 SEPTIEMBRE 20:00H

WE ARE STANDARD
PLAYS "THE CLASH"

BIGOTT

ZEA MAYS

BELAKO

CAPSULA

TANIA DE SOUSA

DJ LA FABRICA DE COPIRES

VENTA DE ENTRADAS EN INTERNET
SARRERAK INTERNETEN BIDEZ EROSTEKO:
RUTXASARRERAK.NET
ENTRADAK DIARIOVASCO.COM TICKETEA.COM
BAR SARGIA (IRUN), PUB UXOA (HONDARRIBIA),
LE BUKOWSKI & DABADABA (DONOSTIA)

FICOBAN APARKALEKUA DOHAK,
TREN GELTONIA FICOBAN,
TERRAZA, JANARIA ETA EDARIA,
PARKINGO FICOBAN GRATUITO,
PARADA DE METRO FICOBAN,
TERRAZA, COMIDA Y BEBIDA.

DOHAN / GRATIS
CONCIERTOS GRATUITOS EN
DIFERENTES PUNTOS DE SAN
JUAN EN TODO EL FIN DE SEMANA
ENCUENTRO CON LOS
MUSICOS PARTICIPANTES
EL DÍA 27/28

TERRAZA FICOBAN / PLAZA SAN JUAN /
OSTEGUNA 25 JUEVES 20:30H
LEE JUNIOR

TERRAZA SAN JUAN / PLAZA DE SAN JUAN /
OSTIRALA 26 VIERNES 20:00H
PANTONES +FRANK +LA BONA DEA

TERRAZA CRISTINA ARRIEN / CALLE SANTIAGO /
LARUNBATA 27 SABADO 19:00H
OSKAR BENAS

TERRAZA FERRAZA / PLAZA SAN JUAN /
IGANDEA 28 DOMINGO 13:00H
HOWDY

EL DIARIOVASCO, ZABALTA, FICOBAN, KALER, radio3, etc.

GB EVENTOS

Ekitaldien antolakuntza, osorik eta nahi erara

www.gbeventos.es

Enpresa ekitaldiak

Erakunde ekitaldiak

Gai baten inguruko ekitaldiak

Jai herrikoiak

Ezkontzak

Urteurrenak

Oscar Portugués
+ DJ *Sizano*

Ekitaldiak zuk nahi duzun erara
Zer behar duzu?

WWW.CASATE EN HONDARRIBIA .COM



Bekak

- ESKATU ZURE BEKA 2014-2015 IKASTURTEAN UNIBERTSITATE IKASKETAK EGITEKO



Deialdigilea: Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Baldintzak: Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean errolatuta egotea 2013ko abenduaren 31n.

Epea: irailaren 30a.

Informazio gehiago:
<http://www.irun.org/igazte>



Ekintzak

- AUTOESTIMU TAILERRA EMAKUMEENTZAKO
"Lana, bikotea, seme-alabak, gurasoak... Eta... NI? NOIZ?"

Inskripzioa: irailaren 10etik

25era 010 telefonoan edo hauetako web orriren baten: www.irun.org/mujer
www.irun.org/
Prezioa: Doan.



- ESKALADA IKASTAROA

Ikastaroaren helburuak: Modurik dibertigarrienean irakastea eskaladan, mugimenduaren psikomotritate, koordinazioa eta bisualizazioa.

Egunak: astelehen eta asteazkenetan; astearte eta ostegunetan; ostiraletan.

Ordua: 16:00 - 18:00

Lekua: Area51 Boulder Aretoke instalazioak, Katea auzoan.

Adina: 5-16 urte

Prezioa: 20 eta 40 euro artean, ikastaroaren arabera.

Informazio gehiago:
txiribuelta@hotmail.es



- GURASOEI LAGUNTZEKO TALDEAK, familian adituak diren psikologoek zuzenduta. "Gurasoekin" programa Irungo Udalak antolatzen du.

Noiz? Maiztasunaren arabera (asterokoa-hamabostero) eta seme-alaben adinaren arabera.

Helburua: gurasoek gune bat eta denbora edukitzea eguneroko bizikidetzari buruz gogoeta egiteko eta partekatzeko. Zailtasunei hobeto aurre egitearren, guraso diren aldetik baliabide pertsonalak, familiarrak eta sozialak hobeto erabiltzen ikasteko. Esperientzia pertsonalak partekatzea eta kontrastatzea.

Informazio gehiago:
www.irun.org/igazte


- ANTZERKI IKASTAROK LEGALEON-T
Haur, gazte eta helduentzako ikastaroak.



Informazioa eta matrikulak: Irailaren 8tik 26ra arte 11etatik 14etara Legaleon T Teatro. Reina Fabiola, 28, behea (Anaka). Telefonoa: 676 53 65 46.

Hasiera: 2014ko urriaren 7a.

Irungo Udalaren Babespean.



Aisialdiko begirale edota zuzendari titulua

- URTXINTXA:

www.urtxintxa.org. Izena emateko epea: irailak 27. Prezioa: 500 euro.

- HEZKIDE ESKOLA:

www.hezkide.org. Izena emateko epea: irailak 9. Prezioa: 310 euro.

- MUNDO NUEVO:

mundonue@gmail.com. Izen-ematea: irailaren 15etik aurrera. Prezioa: 300 uro (begirale) / 250 euro (zuzendari).

- EZIKO UDALEKUA:



www.ezikoudalekua.net / 943 217 413. (Oraindik ez dute 2014/2015eko informazioa).

-LARRUNARRI:

www.larrunarri.com. Izen-ematea: zabalik!. Prezioa: 310 euro (begirale) / 165 euro (zuzendari).



Arkeologia ikastaroa

ARKEOLOGIA IKASTAROA
IRUNEN, KUTXAK ANTOLATUTA:
Arqueología de la ciudad de Roma, II

- 16 urtetik gorakoei zuzendua.
- Otsailetik maiatzera. Asteartero 18:00etatik 19:00etara.
Matrikula: irailaren 25era arte.
www.kutxabank.com/aulas-kutxa Tel: 943 63 53 93



Gazte Informazioko ordutegi berria



Irailan IGaztek honako ordutegia izango du: astelehenetik ostiralera 10:00etatik 14:00etara



zure enpresari internetetik zabalitzen laguntzen diogu

- marketing online
- bideo online
- web orriak
- sare sozialak
- formakuntza



**Irailaren 17an**

Tailerra: Internet eta Enplegua bi-latzea, posta elektronikoa sortzea eta erabiltzea

Ordua: 16:00etan.

Lekua: El Espazio.

Sarrera doan.

Irailaren 19tik urriaren 12ra

Erakusketa: XXIII. "Adour-Bidasoa"

Inaugurazioa: Irailaren 19an 19:30ean.

Lekua: Amaia K.Z.

Sarrera doan.

Irailaren 18an

Espresio tailerrak: pintura eta buztina

Ordua: 19:00etan.

Lekua: Urdanibia plaza (Ospitale Zaharrean).

Sarrera doan.

Irailaren 27an

"Irungo Meatzaritza ezagutzen"

Ordua: 9:30 - 13:00 inguru.

Lekua: Lapurriturriko informazio gunea.

Sarrera doan.

Irailaren 16tik 22ra

Erakusketa

"Ikus-entzunezko eraikuntza"

Ordua: Astelehenetik ostiralera, 18:00 - 20:00. Larunbategian, 11:00 - 13:00.

Lekua: Irun Factory, Jose Antonio Loidi Bizarrondo, 8.

Sarrera doan.

Irailaren 27an eta 28an

Irteera Bardenas eta Moncayo

Salmenta Erlaitz Mendi Elkartean (Peña kalea z.g.)



Euskara ikasi Irunen

Udal Euskaltegia

Matrikula: Irailaren 19ra arte.
Urdanibia plaza.
943 505 273
euskaltegi@irun.org
10:30-13:30 / 16:30-20:00

Irungo AEK

Matrikula: irailaren 25era arte.
Legia kalea, 6. 943 628 834
irun@ae.org
Ordutegia: 10:00 -13:30 / 17:00 - 20:00.

Herri Jakintza Euskaltegia

Matrikula: Irailaren 26ra arte.
Nafarroa hiribidea, 13.
943 625 266. Ordutegia:
11:00 - 13:00 / 17:00 - 19:00.

h e -



r r i j a -

k i n t z a @ g m a i l . c o m

Irungo Hizkuntza Eskola Ofiziala

Matrikula: Irailaren 18ra arte.
Eskaera internetez egin behar da. www.eoirun.com
43 623 381 - 943 626 391

Gorputzaren eta gogoaren oreka

Zer: Ikastaro hau proposatzen dizue zuen elkartearen lantzeko. Zertarako? Osasun fisiko, emozional eta mentalaren oreka indartzeko.

Ikastaroa euskaraz edo gaztelaniaz izan daiteke.

Noiz: Asteartero Irunen 18:30etik 20:30era urritik maiatzera, edo larunbat bat hilean behin zortzi orduz.

Emaila: Elizabeth Olaskoaga.


Harremanetarako:
695 928 644, elizolas@yahoo.es.



Garagardo azoka

Estebenea jatetxean
Irailaren 18tik 21era

- Brew Dog experience
- Bidasoko garagardo berriaren auzkezpena
- Kontzertua
- Afaria Erik Coeneren azalpenekin
- Artisau-garagardo ikastaroa



Olaberria auzoa, 51 - IRUN - 943 62 19 62



APUNTO

centro fitness

Helduentzako klaseak baita 4 urtetik aurrerako umeentzat ere

ZUMBA

PILATES

TONIFIKAZIOA

GAP

AEROBIC

Irailaren 21ean, Zabaltza plazan, ZUMBAKO klase bat emango dugu.

Helduentzako 12:00 etan eta umeentzako 12:45 ean.

ANIMA ZAITEZTE, dohainik da!!!

**matrikula
DOHAIN**

ETORRI ETA INFORMA ZAITEZ

Amaia Camarero Susperregui

646 680 600

C/Aureliano Lopez de B Herrera n°4 (PIO XII)

www.apuntofitness.com